URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA CEIT TEKNOLOGIA ZENTROA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EAE-KO PAPERGINTZA SEKTOREKO HONDAKIN-URAK KUDEATZEKO ALTERNATIBAK AZTERTZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24a

**BILDU DIRA**

Antonio Aiz Salazar jn., Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta José María Rodríguez Ibabe jn., Ceit Teknologia Zentroa Elkarteko presidentea.

**PARTE HARTU DUTE**

Lehenengoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia den aldetik, eta Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dion eskuduntzari jarraikiz.

Eta bigarrena, Ceit Teknologia Zentroa Elkarteko presidentea den aldetik, erakunde horren legezko ordezkaritza bere gain hartuz, haren Estatutuetako 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y LA ASOCIACIÓN CENTRO TECNOLÓGICO CEIT PARA EL ESTUDIO DE ALTERNATIVAS DE GESTION DE LAS AGUAS RESIDUALES DEL SECTOR PAPELERO EN LA CAPV

Vitoria-Gasteiz a 24 de mayo de 2021.

**SE REUNEN**

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D José María Rodríguez Ibabe Presidente de la Asociación Centro Tecnológico Ceit.

**INTERVIENEN**

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

Y el segundo, como Presidente de la Asociación Centro Tecnológico Ceit y asumiendo la representación legal de la misma de conformidad con lo dispuesto en el art. 38 de sus Estatutos.

Esku-hartzaileek elkarri aitortzen diote legezko gaitasuna dutela HITZARMEN hau egiteko, eta, horretarako, honako hau.

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO, y a tal efecto.

**AZALDU DUTE**

**EXPONEN**

**LEHENENGOA.-** Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoak, ekainaren 26ko 1/2006 Legearen bidez sortuak, Euskadiko ur-politika gauzatzeko xedea du eta honako eginkizunak ditu, besteak beste:

- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzeak egitea; bereziki, emakida eta baimen administratiboak ematea.

- Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.

- Arlo horretako eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzea.

**PRIMERO.-** Que la Agencia Vasca del Agua es el ente público de Derecho privado creado por la Ley 1/2006, de 26 de junio, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi, y al que le corresponden, entre otras las siguientes funciones:

- Intervenciones para la protección del dominio público hidráulico, en especial el otorgamiento de las concesiones y autorizaciones administrativas.

- La autorización de los vertidos tierra-mar

- Garantizar, en coordinación con las administraciones con competencias en la materia, la protección y conservación del dominio público hidráulico.

**BIGARRENA.-** Ceit Teknologia Zentroa Elkartea irabazi asmorik gabeko elkartea da eta bere eginkizun nagusiak dira, batetik, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzea eta, bestetik, teknologiari buruzko aholkularitza-zerbitzuak ematea, teknologiaren diagnostikoa eta bideragarritasun teknikoko azterketak egitera zuzenduak, besteak beste.

**SEGUNDO.-** Que la Asociación Centro Tecnológico Ceit, es una asociación sin ánimo de lucro centrada en la realización de proyectos de investigación, desarrollo e innovación tecnológica, así como en servicios de asesoramiento tecnológico orientados al diagnóstico tecnológico y estudios de viabilidad técnica, entre otros.

Sortu zenetik, Ceit esparru honetan aritu da lanean. I+G+b proiektuen eta doktorego-tesien bitartez, hiriko eta industriako hondakin-urak tratatzeko teknologien eredu matematikoen liburutegi oso bat garatu du eta horiek kasu pilotuen eta errealen eskalan kontrastatu eta balioztatu ditu. Proiektu horietako batzuen ardatza Donostialdeko hondakin-uren tratamendua eta Loiolako HUA izan dira.

Desde su creación Ceit, lleva trabajando en este ámbito, habiendo desarrollado mediante proyectos de I+D+i y tesis doctorales una completa librería de modelos matemáticos de tecnologías para el tratamiento de aguas residuales urbanas e industriales que han sido contrastadas y validadas en casos a escala piloto y real. Varios de estos proyectos se han centrado en el tratamiento de las aguas residuales de Donostialdea y la EDAR de Loiola.

**HIRUGARRENA.-** EAEko papergintza-sektorearen barruan, enpresa batzuek beren hondakin-urak erabat arazi eta zuzenean jabari publikora isurtzen dituzte (isurtzeko baimenean adierazitako baldintzetan); beste batzuek, berriz, haiekin konektatutako partzuergo edo mankomunitateko instalazioetara bidaltzen dituzte, bertan tratatu ditzaten.

**TERCERO.-** Que, dentro del sector papelero de la CAPV hay empresas que realizan una depuración completa de sus aguas residuales vertiendo directamente al dominio público (dentro de los términos señalados en su autorización de vertido) mientras que otras las conducen para su tratamiento a las instalaciones de un Consorcio o Mancomunidad a la que están conectadas.

**LAUGARRENA.-** PAPRESA paper-fabrikaren kasua azken hori da; bere hondakin-urak Loiolako HUAra bideratzen ditu, han tratatu daitezen. Añarbeko Uren Mankomunitatea da HUA horren jabea, baita Uraren Euskal Agentziak lurretik itsasorako isurketak egiteko bere garaian eman zuen baimenaren titularra ere.

**CUARTO.-** Que, éste último es el caso de la industria papelera PAPRESA, cuyas aguas residuales se conducen para su tratamiento a la EDAR de Loiola, perteneciente a la Mancomunidad de Aguas del Añarbe que es la titular de la autorización de vertido tierra-mar, otorgada en su día por la Agencia Vasca del Agua.

**BOSGARRENA.-** HUA horrek aipatutako isurtzeko baimenean adierazitako gehieneko isurketa-balioak urratzen ditu. Horregatik, Mankomunitateari zehapen asko jarri zaizkio eta, gaur egun, Europako Batzordeak Hiriko hondakin-urak tratatzeari buruzko 91/271/EEE Zuzentaraua aplikatuz bideratutako arau-hauste prozedura baten barruan dago.

**QUINTO.-** Que esta EDAR incumple los Valores Límite de Emisión marcados en la citada autorización de vertido, motivo por el que la Mancomunidad ha sido sancionada en numerosas ocasiones, encontrándose en la actualidad incluida en un Procedimiento de Infracción instruido por la Comisión Europea, en aplicación de la Directiva 91/271/CEE sobre el tratamiento de aguas residuales urbanas.

Muga horiek direla medio, HUAren birmordaketa egingo da, tratamendu-ahalmena handitzeko.
Birmoldaketa hori aurreproiektu fasean dago orain, eta laster tratamendu-alternatiba bat proposatuko da, ondoren hura garatzeko.

Debido a estas limitaciones, se va a remodelar la EDAR, para ampliar su capacidad de tratamiento.
Esta remodelación se encuentra ahora mismo en fase de anteproyecto, estando prevista próximamente la propuesta de una alternativa de tratamiento, seguido de su posterior desarrollo.

SEIGARRENA.- Kontuan hartuz aipatutako HUAra bidaltzen diren hondakin-uren zati handi bat Papresa enpresak isuritakoa dela, horrek araztegian duen benetako inpaktua zein den aztertu behar da, ur horiek arazteko irtenbide onena teknikoki eta ingurumenari dagokionez zein den definitzeko: aglomerazioan uztea eta Loiolako HUAn tratatzen jarraitzea edo tratamendu alternatibo independente eta oso bat izan behar duen.

**SEXTO.-** Teniendo en cuenta que una fracción significativa del aporte de agua residual a la reiterada EDAR lo constituye el vertido de la empresa Papresa, resulta necesario estudiar el impacto real del mismo en la Estación Depuradora, para definir cuál es la mejor solución técnica y ambiental para depurar estas aguas, si mantenerlo en la aglomeración y continuar tratándolas en la EDAR de Loiola, o si debe tener un tratamiento alternativo independiente y completo.

**ZAZPIGARRENA.-** Era berean, EAEko paper-industriak, gaur egun hondakin-urak arazteko tratamendu independentea egiten dutenak, dagozkien aglomerazioetako hiri-hondakin-uren araztegiekin lotzeko bideragarritasuna aztertu nahi da, eta, ondorioz, jabari publikoaren babesean eta kontserbazioan aurrerapauso bat emateko

**SÉPTIMO.-** Que, se pretende así mismo, estudiar la viabilidad de la conexión de las industrias papeleras de la CAPV que actualmente realizan un tratamiento depurativo independiente de sus aguas residuales, a las EDARes urbanas de sus respectivas aglomeraciones, con el consecuente avance en la protección y conservación del dominio público.

**ZORTZIGARRENA.-** Horrenbestez, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute, honako hauei jarraikiz:

**OCTAVO-** Que, por todo ello, ambas partes, suscriben el presente convenio, con arreglo a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLÁUSULAS**

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA**

**PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.**

Hitzarmen honen helburua da Uraren Euskal Agentziaren eta Ceit Teknologia Zentroa Elkartearen arteko lankidetza gauzatzeko baldintzak ezartzea, EAEko papergintza-sektoreko hondakin-urak kudeatzeko alternatiben inguruko azterlan bat egiteko.

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y la Asociación Centro Tecnológico Ceit se comprometen a colaborar en la realización de un estudio de alternativas de gestión de las aguas residuales del sector papelero en la CAPV.

**BIGARRENA.- EGIN BEHARREKO JARDUKETAK.**

EAEko papergintza-industrian sortzen diren hondakin-urak kudeatzeko eta tratatzeko irtenbide tekniko egokiena zein den analizatzeko eta definitzeko azterlan bat egin beharko da, ondorengo klausuletan finkatutako baldintzetan. Azterlanak hiru fase izango ditu:

A FASEA: Papresaren isurketak Loiolako HUAn duen eragina ebaluatuko da.

- B FASEA: Loiolako HUA birmoldatzeko irtenbide tekniko egokiena zein den analizatuko da.

- C FASEA: EAEko papergintza-sektorearen hondakin-uren tratamendua aztertuko da.

Hitzarmenaren eranskinean jasota daude fase bakoitzean barne hartutako jardueren xehetasunak, horien helburuak, bai eta bakoitzari dagokion kronograma ere.

**SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.**

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, consisten en la realización de un estudio que analice y defina la solución técnica más apropiada para la gestión y el tratamiento de las aguas residuales generadas por la industria del papel en la CAPV. El estudio se compone de tres fases diferenciadas:

- FASE A: Evaluación del impacto del vertido de Papresa en la EDAR de Loiola.

- FASE B: Análisis de la solución técnica más apropiada para remodelar la EDAR de Loiola.

- FASE C: Estudio del tratamiento de las aguas residuales del sector papelero en la CAPV.

En el Anexo que acompaña al presente convenio se detallan las actividades incluidas en cada una de estas fases, los objetivos de las mismas, así como el cronograma que corresponde a cada una de ellas.

**HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.**

Uraren Euskal Agentziak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) Eskura duen informazioa eta dokumentazioa emango dizkio Ceit Teknologia Zentroa Elkarteari, hitzarmen honen helburua behar bezala bete ahal izateko.

b) Hitzarmen hau garatzeko jarduketa-ildo orokorrak jorratu eta definituko ditu.

c) Loiolako HUA birmoldatzeko aukeratutako irtenbide teknologikoaren edo teknologikoen definizio osoa eskuratzeko aukera emango dio Ceit Elkarteari, eredu matematikoak eraiki ahal izateko.

d) Txostenen emaitzak baliozkotuko ditu.

e) Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren Tratamendu Jardueren Erregistroan («Uraren arloko baimenen eta emakiden kudeaketa») jasotako datuak emango dizkio Ceit Teknologia Zentroa Elkarteari.

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.**

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Facilitar a la Asociación Centro Tecnológico Ceit la información y documentación disponible para el buen fin y cumplimiento del objeto del presente convenio.

b) Elaborar y definir las líneas generales de actuación para el desarrollo del presente convenio.

c) Posibilitar a Ceit el acceso a la definición completa de la solución o soluciones tecnológicas seleccionadas para remodelar la EDAR de Loiola, necesaria para la construcción de modelos matemáticos.

d) Validar los resultados de los informes.

e) Ceder a la Asociación Centro Tecnológico Ceit los datos que están declarados en el Registro de Actividades de Tratamiento denominado "*Gestión de autorizaciones y concesiones en materia de aguas*", responsabilidad de la Dirección de Gestión del Dominio Público.

e) Hitzarmenaren xede den azterlanean barne hartutako jarduketen egiazko zenbatekoaren finantzaketan parte hartuko du, gehienez HIRUROGEITA HEMERETZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HAMAR **ZENTIMO (79.775,30 €) bideratuta, BEZa** barne. Zenbateko horretan bilduta daude 2021erako HIRUROGEITA HIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEI EURO ETA HOGEITA LAU **ZENTIMOKO (63.820,24 €)** ordainketa-kreditu bat eta 2022rako HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA SEI **ZENTIMOKO (15.955,06 €) konpromiso-**kreditu bat. Horiek guztiak Agentziaren aurrekontuaren kargura finantzatuko dira.

e) Participar en la financiación del importe efectivo de las actuaciones incluidas en el estudio objeto del convenio hasta un importe máximo de SETENTA Y NUEVE MIL SETECIENTOS SETENTA Y CINCO EUROS CON TREINTA CÉNTIMOS (79.775,30 €), IVA incluido, correspondientes a un crédito de pago para 2021 de SESENTA Y TRES MIL OCHOCIENTOS VEINTICUATRO EUROS CON VEINTICUATRO CÉNTIMOS (63.820,24 €) y un crédito de compromiso para 2022 de QUINCE MIL NOVECIENTOS CINCUENTA Y CINCO EUROS CON SEIS CÉNTIMOS (15.955,06 €) que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia.

**LAUGARRENA.- CEIT TEKNOLOGIA ZENTROA ELKARTEAREN** KONPROMISOAK.

Ceit Teknologia Zentroa Elkarteak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Hitzarmenaren xede den azterlanean barne hartutako jarduketak egitea, Uraren Euskal Agentziak finkatutako jarduera-lerroei jarraikiz.

b) Agentziari proiektuko fase bakoitzean egindako lanaren emaitzen analisia eta ondorioak bilduko dituzten txosten teknikoak

**CUARTA.- COMPROMISOS DE LA ASOCIACIÓN CENTRO TECNOLÓGICO CEIT.**

La Asociación Centro Tecnológico Ceit se compromete a:

a) Realizar las actuaciones incluidas en el estudio el objeto del convenio, de acuerdo con las líneas de actuación definidas por la Agencia Vasca del Agua.

b) Presentar a la Agencia sendos informes técnicos con el análisis de resultados y conclusiones del trabajo llevado a cabo en

aurkeztea, hitzartutako zerbitzuetan izandako kostuak haren aurrean justifikatuz.

cada una de las fases del proyecto, justificando ante la misma el coste incurrido en los servicios acordados.

c) Datu-babesaren alorrean, dagozkion betebeharrak betetzea, datuen tratamenduaren arduradun den heinean, zazpigarren klausularekin bat.

c) Asumir, en materia de protección de datos, las obligaciones que le corresponden como Encargada del Tratamiento, según se regula en la cláusula séptima.

**BOSGARRENA.- JARDUKETEN GARAPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA.**

**QUINTA.- DESARROLLO DE LAS ACTUACIONES Y FORMA DE PAGO.**

1.- Ceit Teknologia Zentroa Elkarteak hitzarmen honen xede den azterlana gauzatuko du, Agentziaren zuzendaritza teknikoaren agindupean eta hitzarmen honen Eranskinean adierazitako faseak eta epeak betez.

1.- La Asociación Centro Tecnológico Ceit llevará a cabo el estudio objeto del convenio bajo la dirección técnica de la Agencia y siguiendo las fases y plazos que se recogen en el Anexo al presente convenio.

2.- Ceit Teknologia Zentroa Elkarteak hitzarmen honen barneko lanak zuzen eta erabat egikaritzeko beharrezkoak diren jarduera eta izapide guztiak beteko ditu.

2.- La Asociación Centro Tecnológico Ceit realizará cuantas actividades y trámites resulten necesarios para la correcta y total ejecución de los trabajos recogidos en el presente convenio.

3.- Hitzarmen hau sinatutakoan hasiko dira lanak, eta aipatutako Eranskinean zehaztutakoaren arabera garatuko dira.

3.- La ejecución de los trabajos se iniciará a la firma del presente convenio y se desarrollará según se detalla en el citado Anexo.

4.- Uraren Euskal Agentziak honela egingo dio ekarpen ekonomikoa Ceit Teknologia Zentroa Elkarteari:

4.- El abono de la aportación económica con la que contribuye la Agencia Vasca del Agua se aportará a la Asociación Centro Tecnológico Ceit de la siguiente manera:

a) Hamabost mila bederatziehun eta berrogeita hamabost euro eta sei zentimo (15.955,06 €) **hitzarmena sinatzen** denean; hots, lanak hasten direnean.

a) Quince mil novecientos cincuenta y cinco euros con seis céntimos (15.955,06€) a la firma del presente convenio, coincidiendo con el inicio de los trabajos.

b) Hamabost mila bederatziehun eta berrogeita hamabost euro eta sei zentimo (15.955,06 €) azterlanaren A faseko bukaerako txostena entregatutakoan.

b) Quince mil novecientos cincuenta y cinco **euros con seis céntimos** (15.955,06 €) tras la entrega del informe final correspondiente a la fase A del estudio.

c) Hogeita hamaika mila bederatziehun eta **hamar euro eta hamabi zentimo** (31.910,12 €) azterlanaren B faseko bukaerako txostena entregatutakoan.

c) Treinta y un mil novecientos diez euros con doce céntimos (31.910,12 €) tras la entrega del informe final correspondiente a la fase B del estudio.

d) Hamabost mila bederatziehun eta berrogeita hamabost euro eta sei zentimo (15.955,06 €) **azterlanaren** C **faseko** bukaerako txostena entregatutakoan.

d) Quince mil novecientos cincuenta y cinco **euros con seis céntimos** (15.955,06 €) tras la entrega del informe final correspondiente a la fase C del estudio.

5.- Ceit Teknologia Zentroa Elkarteari dagokion faktura aurkeztu ondoren egingo zaizkio ordainketak.

5.- Los abonos a la Asociación Centro Tecnológico Ceit se realizarán previa presentación de la factura correspondiente.

**SEIGARRENA.- EGINDAKO LANEN TITULARTASUNA**

**SEXTA.- TITULARIDAD DE LOS TRABAJOS REALIZADOS**

Hitzarmena gauzatzean sortzen diren azterlan eta dokumentu guztiak alde sinatzaileen titulartasunekoak izango dira. Eta horietako bakoitzak konpromisoa hartzen du jabetza intelektual eta industrialari dagozkion eskubideak errespetatzeko, indarreko araudiaren arabera.

Todos los estudios y documentos elaborados en ejecución del convenio serán de titularidad de las partes firmantes, que se comprometen a respetar sus respectivos derechos en materia de propiedad intelectual e industrial, de conformidad con la normativa vigente.

Hitzarmena gauzatzean sortzen diren azterlanak eta dokumentuak erabiltzeko, edo horietatik eratorritako argitalpen zientifikoak eta bestelakoak egiteko, beharrezkoa izango da alde sinatzaileak aurrez hartarako ados agertzea, eta alde bien arteko lankidetza aipatu beharko da beti.

El uso y las publicaciones científicas o demás divulgaciones que, en su caso, se deriven de los estudios y documentos elaborados con motivo del convenio, necesitarán el acuerdo previo de las partes firmantes, debiendo citarse siempre la presente colaboración existente entre ellas.

**ZAZPIGARRENA.- DATUEN BABESA.**

1.- Ceit Teknologia Zentroa Elkarteak, datuen tratamenduaren aurretik eta tratamenduak iraun bitartean, datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete beharko du, honako hauen arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesten dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

2.- Hirugarren erakunde batek hitzarmen honen xede den lanen bat gauzatu behar badu, Tratamendu-eragileari dagozkion betebehar guztiak bere gain hartu beharko ditu.

**SÉPTIMA.- PROTECCIÓN DE DATOS.**

1.- La Asociación Centro Tecnológico Ceit tendrá la obligación de velar, de forma previa y durante todo el tratamiento de datos, por el cumplimiento de la normativa de protección de datos personales, derivada del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

2.- En el caso de que resulte necesaria la ejecución por una tercera entidad de alguno de los trabajos objeto del presente convenio la misma quedará subrogada en todas las obligaciones que corresponden a la Encargada del Tratamiento.

**ZORTZIGARRENA.- JARDUKETEN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA.**

1.- Lankidetza-hitzarmen honen jarraipen-batzordea eratuko da. Batzordekideak lau izango dira: alde sinatzaile bakoitzetik bina ordezkari. Hurrenez hurren, hitzarmen hau sinatu duten aldeek izendatuko dituzte kideak, eginkizun hauek betetzeko:

a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzen diren zaintzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

b) Kasu bakoitzean behar diren izapideak azkar egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko bideak ematea.

c) Lankidetza-hitzarmen honen xedeko jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.

d) Lankidetza-hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio- eta betearazpen-arazoak konpontzen saiatzea.

**OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.**

1.- Se constituirá una comisión para el seguimiento del presente convenio de colaboración compuesta por cuatro personas, dos en representación de cada una de las partes firmantes, que se designarán, respectivamente, por quienes suscriben el convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente convenio de colaboración.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta aldeetako edozeinek proposatuta, jarduketak ondo joateko behar den adina bider elkartuko da batzordea. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak espresuki bestelakorik adosten ez badu. Bilera egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma batzordeko kide guztiek osatuko dute.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3. Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da, zeina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen baita.

3. En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**BEDERATZIGARRENA.-HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.**

**NOVENA.- REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.**

1. Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa betebeharko da.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2. Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezinbada, 40/2015 legea betebeharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos de común acuerdo por las partes;

si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

1. Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoen gatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2. Sinatzen den unetikegongo da indarreanhitzarmena eta, berexedeabete arte, sinatzaileak hitzartutakoa betetzerabehartuta egongo dira. Hitzarmenaren iraupena gehienez lau urtekoa izango da, luzagarria izan daitekeena egungo legeriaren bat.

**DÉCIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.**

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la conclusión y entrega de las actuaciones objeto de este convenio, con un máximo inicial de dos años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

**HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.**

1. Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igarodelako edo hitzarmena hautsiegin delako iraungiko da.

2. Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Hitzarmena hautsiz gero, aldeek zehaztuko dute nola amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen aridiren lanak.

**UNDÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.**

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la

finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA/ URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA**

ZUZENDARI NAGUSIA ura DIRECTOR GENERAL

**ANTONIO AIZ SALAZAR**

**CEIT TEKNOLOGIA ZENTROA ELKARTEKO PRESIDENTEA /EL PRESIDENTE DE LA ASOCIACIÓN CENTRO TECNOLÓGICO CEIT**

**JOSE MARÍA RODRÍGUEZ IBABE**

**ANEXO**

ESTUDIO DE ALTERNATIVAS DE GESTION DE LAS AGUAS RESIDUALES

DEL SECTOR PAPELERO EN LA CAPV

Se plantean los siguientes **objetivos parciales:**

a) Analizar el impacto que tendrían las aguas residuales de Papresa en la nueva EDAR de Loiola, de cara a disponer de la información técnica necesaria para discutir su incorporación o su tratamiento y vertido separado de la red urbana.

b) Analizar el diseño y dimensionamiento de la nueva EDAR de Loiola, explorando por simulación su comportamiento ante diferentes escenarios de operación.

c) Analizar ya de manera general las soluciones técnicas más adecuadas para tratar el agua residual generada en las diferentes industrias papeleras de la CAPV.

**Cada uno de los objetivos parciales se aborda en una FASE** diferente, aunque los resultados obtenidos serán complementarios de cara al objetivo general.

- **FASE A: Evaluación del impacto del vertido de Papresa en la EDAR de Loiola**.

Tareas:

• A1: Caracterización del vertido esperable en Papresa

- Recopilación de la información histórica disponible sobre el vertido actual de Papresa.
- Realización de una campaña analítica complementaria (DQO total y filtrada, DBO5, SST, SSV, pH, Conductividad, Sulfatos) del agua residual producida en Papresa
- Realización de ensayos de laboratorio para determinar la biodegradabilidad aerobia y anaerobia del agua de Papresa.
- Estimación de las características esperables en el agua residual de Papresa tras la puesta en marcha del nuevo tratamiento anaerobio.

• A2: Análisis del impacto esperable en la futura EDAR

- Recopilación de información sobre las características de la carga afluente actual a la EDAR de Loiola
- Análisis de la potencial contribución del futuro vertido de Papresa sobre la carga esperada en la nueva EDAR de Loiola en términos de valores de DQO (total y filtrada), DBO5, DQO no biodegradable y sulfatos.
- Estimación del impacto esperable en la nueva EDAR de Loiola debido al futuro vertido de Papresa. Efecto en la calidad efluente y en los principales costes operacionales (requerimientos de oxígeno y producción de fangos).
- Elaboración del informe técnico correspondiente

- **FASE B: Análisis de la solución técnica más apropiada para remodelar la EDAR de Loiola.**

Tareas:

• B1: Análisis de la solución técnica más apropiada

- Recopilación y análisis de información sobre las potenciales tecnologías preseleccionadas para la nueva planta.
- Discusión de las ventajas y limitaciones de las diferentes alternativas.
- Síntesis de información para la elaboración del anteproyecto.

• B2: Construcción del modelo matemático de la futura EDAR de Loiola

- Recopilación y análisis de las analíticas históricas de la EDAR de Loiola.
- Construcción y puesta en marcha del modelo matemático de la tecnología seleccionada para la nueva EDAR en la plataforma de simulación WEST.
- Construcción de los escenarios de simulación (perfiles en entrada, parámetros a analizar, funciones de coste, etc.)

• B3: Simulación del comportamiento de la futura EDAR de Loiola

- Análisis por simulación del comportamiento de la futura EDAR y definición preliminar de las estrategias operacionales ante diferentes escenarios.
- Recopilación y discusión de resultados de simulación y elaboración del informe final.

- **FASE C: Estudio del tratamiento de las aguas residuales del sector papelero en la CAPV**

Tareas:

• C1: Recopilación y análisis de información

- Recopilación y análisis de las características de las aguas residuales generadas por las empresas de producción de papel en la CAPV.
- Recopilación y análisis de las tecnologías existentes para el tratamiento de las aguas residuales papeleras en las propias instalaciones industriales.
- Recopilación y análisis de las estrategias de tratamiento de aguas residuales de papeleras en diferentes escenarios en países del entorno.
- Recopilación y análisis de la capacidad de tratamiento en las EDAR que reciben o son potenciales receptoras de los vertidos de las empresas papeleras.

• C2: Propuesta de las soluciones tecnológicas más apropiadas

- Análisis comparativo de las soluciones técnicas disponibles para la gestión y tratamiento de las aguas residuales generadas en cada una de las industrias papeleras de la CAPV
- Selección de las soluciones técnicas más apropiadas para cada caso.
- Elaboración del informe final

## PLAN DE TRABAJO Y ENTREGABLES

La distribución temporal de las tareas de cada Fase aparece descrita en el cronograma:

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A** | **Evaluación impacto de Papresa en la EDAR de Loiola** | | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | A1 | Caracterización del vertido esperable en Papresa | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | A2 | Análisis del impacto esperable en la futura EDAR | | ■ | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **B** | **Análisis solución técnica más apropiada EDAR de Loiola** | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | | | |
| | B1 | Análisis de la solución técnica más apropiada | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | B2 | Construcción del modelo matemático | | | ■ | ■ | | | | | | | | |
| | B3 | Simulación comportamiento futura EDAR | | | | | ■ | ■ | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **C** | **Estudio tratamiento aguas sector papelero en la CAPV** | | | | | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| | C1 | Recopilación y análisis de información | | | | | | | ■ | ■ | ■ | | | |
| | C2 | Propuesta soluciones tecnológicas más apropiadas | | | | | | | | | | ■ | ■ | ■ |

El proyecto en su totalidad presenta tres hitos coincidiendo con la finalización de cada fase:

- H1: Finalización de la FASE A y presentación de la evaluación del impacto del vertido de Papresa en la futura EDAR de Loiola. Está previsto a los 2 meses de la puesta en marcha del proyecto.

- H2: Finalización de la FASE B y presentación del informe Final. Está previsto a los 6 meses de la puesta en marcha del proyecto.

- H3: Finalización de la FASE C y presentación del informe Final. Está previsto a los 12 meses de la puesta en marcha del proyecto.

Periódicamente se informará del grado de avance de los trabajos, las posibles desviaciones y las medidas propuestas para corregirlas, en el caso de que afecten de forma sustancial al desarrollo del Convenio.

Los **entregables previstos** correspondientes a las diferentes fases del Convenio son los siguientes:

⇨ **Informe final FASE 1:** Evaluación del impacto del vertido de Papresa en la futura EDAR de Loiola.

⇨ **Informe final FASE 2**: Análisis solución técnica más apropiada EDAR de Loiola.

⇨ **Informe final FASE 3**: Estudio tratamiento aguas sector papelero en la CAPV.

**ERANSKINA**

EAE-KO PAPERGINTZA-SEKTOREKO

HONDAKIN-URAK KUDEAKEATZEKO ALTERNATIBEN AZTERKETA

Honako **helburu partzial** hauek proposatzen dira:

a) Papresaren hondakin-urek Loiolako HUA berrian izango luketen eragina analizatzea, bere isurketak bertara bideratu behar diren edo hiriko saretik bereizita tratatu eta isuri behar dituen eztabaidatzeko behar den informazio teknikoa edukitzeari begira.

b) Loiolako HUA berriaren diseinua eta dimentsionamendua analizatzea eta zenbait operazio-egoeratan izango lukeen portaera simulazio bidez aztertzea.

c) EAEko paper-fabriketan sortzen den hondakin-ura tratatzeko irtenbide tekniko egokienak modu orokorrean analizatzea.

**Helburu partzialetako bakoitza FASE jakin batean jorratuko da**, baina lortzen diren emaitzak helburu orokorraren osagarriak izango dira.

**- A FASEA: Papresaren isurketak Loiolako HUAn duen eragina ebaluatuko da.**

Zereginak:

• A1: Papresan aurreikusten den isurketaren karakterizazioa

o Papresaren gaur egungo isurketaren inguruan eskuragarri dagoen informazio historikoa bilduko da.

o Papresan sortzen den hondakin-uraren kanpaina analitiko osagarri bat egingo da (OEK osoa eta iragazia, OEB5, SEG, SEH, pH-a, eroankortasuna, sulfatoak).

o Laborategiko saiakuntzak egingo dira, Papresako uraren biodegradagarritasun aerobioa eta anaerobioa zehazteko.

o Tratamendu anaerobio berria martxan jarri ondoren Papresaren hondakin-urean aurreikusten diren ezaugarrien estimazioa egingo da.

• A2: Etorkizuneko HUAn aurreikusten den eraginaren analisia

o Loiolako HUAko gaur egungo isurketa-kargaren ezaugarriei buruzko informazioa bilduko da.

o Papresaren etorkizuneko isurketak Loiolako HUA berrian aurreikusten den kargan egingo duen ekarpen potentzialaren analisia, OEKri (osoa eta iragazia), OEB5i, OEK ez biodegradagarriari eta sulfatoei dagokienez.

o Papresaren etorkizuneko isurketak Loiolako HUA berrian ustez izango duen eragina kalkulatuko da. Isurketa-kalitatean eta operazio-kostu nagusietan (oxigeno eskakizunak eta lohien sorkuntza) izango duen eragina.

o Dagokion txosten teknikoa egingo da.

**- B FASEA: Loiolako HUA birmoldatzeko irtenbide tekniko egokiena zein den analizatuko da.**

Zereginak:

• B1: Irtenbide tekniko egokienaren analisia

o Instalazio berrirako aurreaukeratutako teknologia potentzialei buruzko informazioa bildu eta analizatuko da.

o Alternatiben abantailen eta mugen inguruan eztabaidatuko da.

o Informazioa laburtuko da, aurreproiektua egiteko.

• B2: Loiolako etorkizuneko HUAren eredu matematikoaren eraikuntza

o Loiolako HUAren analitika historikoak bildu eta analizatuko dira.

o HUA berrirako aukeratutako teknologiaren eredu matematikoa WEST simulazio-plataforman egin eta martxan jarriko da.

o Simulazio-egoerak eraikiko dira (sarrera-profilak, analizatu beharreko parametroak, kostu-funtzioak, etab.)

• B3: Loiolako etorkizuneko HUAren portaeraren simulazioa

o Etorkizuneko HUAren portaera simulazio bidez analizatuko da eta hainbat egoeraren aurreko operazio-estrategien aurretiazko definizioa egingo da.

o Simulazio-emaitzak bilduko dira, horien inguruan eztabaidatuko da eta bukaerako txostena egingo da.

**- C FASEA: EAEko papergintza-sektoreko hondakin-uren tratamenduaren azterketa**

Zereginak:

• C1: **Informazioaren bilketa eta analisia**

o Papera ekoizten duten EAEko enpresek sortutako hondakin-uren ezaugarriei buruzko informazioa bildu eta analizatuko da.

o Paper-fabrikek sortutako hondakin-urak haien instalazioetan bertan tratatzeko dauden teknologiei buruzko informazioa bildu eta analizatuko da.

o Inguruko herrialdeetako paper-fabrikek, hainbat egoeraren aurrean, hondakin-urak tratatzeko dituzten estrategiei buruzko informazioa bildu eta analizatuko da.

o Paper-fabriken isurketak jasotzen dituzten edo potentzialki jasoko dituzten HUAen tratamendu-ahalmenari buruzko informazioa bildu eta analizatuko da.

• C2: **Irtenbide teknologiko egokienen proposamena**

o EAEko paper-fabrika bakoitzean sortzen diren hondakin-urak kudeatzeko eta tratatzeko eskuragarri dauden irtenbide teknikoen analisi konparatiboa egingo da.

o Kasu bakoitzerako irtenbide tekniko egokienak aukeratuko dira.

o Bukaerako txostena egingo da.

## LAN PLANGINTZA ETA ENTREGAGAIAK

Fase bakoitzeko eginkizunen denbora-banaketa kronograman dago deskribatuta:

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | **Papresak Loiolako HUAn duen eraginaren ebaluazioa** | | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | A1 | Papresan aurreikusten den isurketaren karakterizazioa | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | A2 | Etorkizuneko HUAn aurreikusten den eraginaren analisia | | ■ | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | **Loiolako HUArako irtenbide tekniko egokienaren analisia** | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | | | |
| | B1 | Irtenbide tekniko egokienaren analisia | ■ | ■ | | | | | | | | | | |
| | B2 | Eredu matematikoaren eraikuntza | | | ■ | ■ | | | | | | | | |
| | B3 | Etorkizuneko HUAren portaeraren simulazioa | | | | | ■ | ■ | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C | **EAEko papergintza-sektoreko uren tratamenduaren azterketa** | | | | | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| | C1 | Informazioaren bilketa eta analisia | | | | | | | ■ | ■ | ■ | | | |
| | C2 | Irtenbide teknologiko egokienen proposamena | | | | | | | | | | ■ | ■ | ■ |

Proiektuak, osotasunean, fase bakoitzaren amaierarekin bat datozen hiru mugarri ditu:

- H1: A FASEAREN amaiera eta Papresaren isurketak Loiolako etorkizuneko HUAn izango duen eraginaren ebaluazioaren aurkezpena. Proiektua martxan jartzen denetik 2 hilabetera izatea aurreikusten da.

- H2: B FASEAREN amaiera eta bukaerako txostenaren aurkezpena. Proiektua martxan jartzen denetik 6 hilabetera izatea aurreikusten da.

- H3: C FASEAREN amaiera eta bukaerako txostenaren aurkezpena. Proiektua martxan jartzen denetik 12 hilabetera izatea aurreikusten da.

Aldizka, lanen aurrerapen-mailaren berri emango da, baita desbideratze posibleena ere eta, hitzarmenaren garapenean eragin adierazgarria badute, horiek zuzentzeko proposatutako neurriena.

Hitzarmeneko fase bakoitzean honako entregagai hauek aurreikusten dira:

- **1. FASEKO bukaerako txostena**: Papresaren isurketak Loiolako etorkizuneko HUAn izango duen eraginaren ebaluazioa.
- **2. FASEKO bukaerako txostena**: Loiolako HUArako irtenbide tekniko egokienaren analisia.
- **3. FASEKO bukaerako txostena**: EAEko papergintza-sektoreko uren tratamenduaren azterketa.